Familia inguruneko zaintzetarako prestazio ekonomikoa -FIZPE-

Fitxa interneten bistaratu

INFORMAZIO OROKORRA

Helburua

Laguntza ekonomiko honek xede du familia inguruneko zaintzaile ez profesionalak mendekotasuna daukan pertsonari ematen dion arretako gastuak estaltzea.

Nork tramitatzen du

- ZAINKETETAKO ETA GIZARTE POLITIKETAKO DEPARTAMENTUA
- Plangintzako, Inbertsioetako, Ikuskapeneko eta Prestazio Ekonomikoetako Zuzendaritza Nagu.
- Plangintzako, Ituneko eta Prestazio Ekonomikoetako Zerbitzua

Nori zuzenduta

Mendekotasun egoeran dauden pertsonak: I, II eta III graduak edo mendekotasuna baloratzeko baremoan (MBB) 25 puntutik 100 puntura.

Baldintzak

Mendeko pertsonak:

- Mendekotasun egoeran baloratua izatea, edozein dela gradua.
- Espainiako nazionalitatea izatea edo legezko egoitza Espainiako Estatuan izatea (adingabeak izan ezik).
- Gutxienez 5 urtez, Espainian edo Europar Batasunean legez bizi izana; horietatik bi gutxienez eskaera aurkeztu aurreko bi urteak izan beharko dute (adingabeak eta itzulitako emigrante espainiarrak salbu).
- Gipuzkoan erroldatuta egotea eta bizitzea.
- Mendekotasunaren egoerari erantzuteko arreta eta zainketak etxean eskaintzea.
- Etxebizitzan baldintza egokiak eman behar dira bizikidetzarako eta bizigarritasunarentzako.

Zaintzaileak:

- Ezkontidea edo izatezko bikotea, 3. mailara arteko ahaidea, tutorea edo hartzailea, edo gutxienez 5 urtez mendeko pertsonarekin bizi izan dena izatea.
- Mendeko pertsonarekin bizitzea eta etxe berean erroldatuta egotea. Ulertuko da betekizun hau ez dela betetzen zaintzailea beste familia unitate bateko kide izanik, unitate honen helbidea mendeko pertsonarenaren desberdina denean.
- 18 urte edo gehiago izatea.
- Mendeko pertsonak II. edo III. graduko mendekotasuna badu, zaintzaileak 85 urte baino gutxiago izatea.
- Espainian bizitzea legez (adingabeen zaintzaileak izan ezik).
- Ez edukitzea aitortuta mendekotasun egoerarik, eta ez izatea beste persona baten laguntza beharrik.
- Ez edukitzea aitortuta % 65eko edo goragoko desgaitasuna. Horrela izango balitz, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen egokitzapen txostena behar da.
- Mendekotasuna duen pertsonaz arduratzeko behar beste denbora izatea.

Zenbatekoa

Urteko 12 ordainketa egingo dira. Mendekotasunaren arabera gehienezko eta gutxienezko zenbatekoak:
III Gradu edo 75 puntutik 100 puntura MBBan: Gehienez 424€ (524€ adintxikikoen kasuan) - Gutxienez 200€
II Gradu edo 50 puntutik 74 puntura MBBan: Gehienez 338€ (368€ adintxikikoen kasuan) - Gutxienez 150€
I Gradu edo 25 puntutik 49 puntura MBBan: Gehienez 154€ (180€ adintxikikoen kasuan) - Gutxienez 100€
Gehienezko kopurua murriztu daiteke (informazio gehigarria ikusi).

Ordaintzeko modua

Mendekotasuna duen pertsonak eskaeran adierazten duen kontuan hila burututa. Eskatzailea aipatutako kontuko titular izan beharko du, adintxikikoen kasuan salbu, kasu hauetan gurasoen edo tutorearen titulartasuneko kontua onartuko delarik.

HASIERA ETA ESKAERA

Aurkeztu beharreko formularioak eta ereduak

Eskaera beteko dute mendekotasun egoeran dagoen pertsona bizi den udalerriko Gizarte Zerbitzuek.

OSO GARRANTZITSUA! Azpian dagoen inprimakia bakarrik **informatze aldera** dago. Eskaera **Udaleko Gizarte Zerbitzuek** egin behar dute, eta horretarako erreferentziazko gizarte langilearekin hitzordua hartu beharko da.
Eskaera orria

Aurkeztu beharreko agiriak

- **Eskaera normalizatu**a, eskatzaileak edo erregistro bateratuan haren ordezkari gisa izena emanda dagoenak sinatua.
- Prestazioa kobratzeko erabiliko duen **kontuaren bankuko frogagiria edo libretaren fotokopi**a (kontuak eskatzailearen izenean egon behar du; adingabeen kasuan soilik, gurasoak izan daitezke titularrak).
- **Errolda agiriak**. Espainian edo EBn gutxienez bost urtez erroldatuta egon izana egiaztatu behar da, eta horietatik bi behintzat eskaera aurkeztu aurreko bi urteak izango dira (adingabeak izan ezik). **Ez da beharrezkoa Gipuzkoan erroldatuta egondako epealdietako errolda agiriak aurkeztea**.
- **Ezkonduak edo izatezko bikoteak:** familia liburuaren fotokopia edo Izatezko Bikoteen Erregistroko ziurtagiria.
- **Bananduak edo dibortziatuak:** banantze epaiaren fotokopia eta, halakorik balego, hitzarmen arauemailearena.
- **Azken ekitaldiko errenta aitorpena Gipuzkoatik kanpo egin bada:** azken errenta aitorpenaren fotokopia, bizikidetza unitateko kide guztiena.
- **Zaintzailearen NANaren edo AIZre**n fotokopia.
- **Zaintzaileak onartutako konpromisoe**i buruzko dokumentu sinatua.

Eskaera moduak

» Presentziala

Zuzeneko arretarako bulegoak

Eskaera aurkeztuko da mendekotasun egoeran dagoen pertsona bizi den udalerriko Gizarte Zerbitzuetan.

EBAZPENA

Ebazteko gehienezko epea

3 hilabete.

Administrazioaren isiltasuna

Ezestekoa

Honen bidez jakinarazten da

» Ohiko postaz

ARAUDIA

6/2023 Foru Dekretua, apirilaren 18koa, abenduaren 14ko 39/2006 Legeak, mendekotasun egoeran dauden pertsonen Autonomia Pertsonala eta Zainketa Sustatzekoak, ezarritako prestazio ekonomikoak arautzen dituena.
6/2023 Foru Dekretua (akats zuzenketa); GAO 2023/5/26
6/2023 Foru Dekretua (54/2023 Foru Dekretuak sartutako aldaketak); GAO 2023/11/24
Gehieneko zenbatekoak onartzen dituen Diputatuen Kontseiluko akordioa; GAO 2017/12/29
Gutxieneko zenbatekoak onartzen dituen Diputatuen Kontseiluko akordioa; GAO 2023/12/18
39/2006 Legea, abenduaren 14koa, mendekotasun egoeran dauden pertsonen autonomia pertsonala eta laguntza sustatzekoa.

INFORMAZIO OSAGARRIA

Oharrak

-Zaintzaileek (75 urtetik beherakoek) Foru Aldundiak emandako zainketei buruzko oinarrizko prestakuntza bat (16 ordukoa) egin beharko dute.
-Prestazioaren eskubideari edo zenbatekoari eragin diezaioken edozein aldaketa 30 eguneko gehieneko epean jakinarazi behar da. Baita zaintzailea aldatzen bada edo onuradunaren, edo zaintzailearen, edozein helbide edo errolda aldaketa ere.
-Prestazioaren egokitasuna aztertzeko gizarte zerbitzuetako langileek onuradunaren etxera egin ditzaketen bisitak errazteko betebeharra dute onuradunek.
-Oker jasotako diru zenbatekoak itzuli beharko dira.

Informazio gehigarria

Bateraezintasunak beste zerbitzu eta prestazioekin

-Bateragarria: Eguneko Zentroko zerbitzuarekin (prestazioan %40ko murrizketa bat aplikatuz), Taller Okupazionalekin eta Etxez Etxeko Laguntza zerbitzuarekin.
-Denboraldi batean bateragarria (urte naturalean bi hilabetez gehienez): Aldi baterako Egonaldiekin, Zentro Soziosanitarioekin edo Ospitale Psikiatrikoekin.
-Bateraezina: Egoitza Arreta Iraunkorrarekin (publikoa nahiz pribatua) eta Laguntza Pertsonalerako Prestazio Ekonomikoarekin (LPPE).

Gehieneko prestazioaren gaineko murrizketak

-Lehenenik, onuradunaren edo bere elkarbizitza unitateko beste kideen errenta aitorpenetan (PFEZ) aitortutako edo egiaztatuko etekinen arabera prestazioaren gehieneko zenbatekoa %10, %20 edo % 30 gutxitu daiteke, edo murrizketarik ez egin.
-Bigarren, gizarte babeseko sistema publikoan ezarrita dagoen izaera eta xede berdintsuko beste prestazioren bat jasotzen bada, haren zenbatekoa ere kendu egingo da, bereziki hauek:
1.- Erabateko ezintasun iraunkorreko pentsioaren baliaezintasun handiaren osagarria.
2.- Norberaren kargura 18 urtetik gora eta %75 edo gehiagoko desgaitasuna duen seme-alabengatik ematen den diru kopurua.
3.- Beste norbaiten beharragatik ematen den baliaezintasuneko kotizatu gabeko pentsioaren osagarria.
4.- Beste norbaiten laguntza beharragatik emandako subsidioa minusbaliatuak gizarteratzeari buruzko legekoa.
-Azkenik, prestazioa %40 batean murriztuko da Eguneko Zentro batera joaten bada.

Murrizketa eta kenketa hauen ondoren prestazioaren zenbatekoak legez onartutako gutxienekoa errespetatu beharko du.